

KONTROL MOZIOA

METRO PASANTEAREN LANEI BURUZKOA

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2020ko urriaren 19an Gune Publikoen Batzordean aurkeztutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Ekainaren 5ean Zubieta kaleko eraikinean zuloa eragin ondoren, Kontxaren azpiko zatian, metro-pasantea eraikitzeko lanak gelditu ziren, txosten geologiko eta hidrogeologiko osagarriak egiteko.

Ekainaren 15eko udal batzordean alkateak egindako agerraldian (EH Bilduk eskatuta), Eneko Goiak honi buruzko azalpenak eman zituen eta ez zegoela zertan kezkatu adierazi zuen.

Argibide gehiago izan aldera, EH Bilduk eskatuta, uztailearen 20an, ETSren obren jarraipena egiteko batzorde ez-iraunkorraren bilera egin zen. Zubieta kalean egin beharreko esku-hartzeaz gain, bertan inongo momentutan ez zen jakinarazi inguru horretan aparteko neurririk hartuko zenik. Abuztuan, ordea, ETSk premiazko esku-hartze bati ekin zion Kontxako hondartzako arkupean.

Irailaren 25ean ETSk jakinarazi zuen Easo-Kontxa zati osoan lanak bertan behera utziko zituela, eta are larriagoa dena, gainkostuak izango dituen proiektu berri bat egin beharko zela.

Udal taldeok prentsaren bidez izan dugu Kontxako arkupeko premiazko esku-hartzearen berri zein Mirakontxa-Easo zatian lanak bertan geratu izanaren berri ere.

Eneko Goia alkateak ekainaren 15eko batzorde hartan, ETSrekin harreman estua zuela esan zigun. Hori horrela, ez dugu ulertzen, beraz, harreman hori benetan estua eta eraginkorra bada, eta alkateak ETSren garrantzi handiko bi erabaki horien berri bazuen, nolatan ez dituen partekatu udal taldeekin.

Horregatik, horri buruz galdetu genion urriaren 19ko Gune Publikoen Batzordean, baina han erantzundakoak ez zigun argibiderik eman. Eneko Goiak, alkate jaunak, hari ez galdetzeko eta Legebiltzarrean galdetzeko eskatu zigun, non eta Udal Gobernu honek baduen lan honekiko ardura. ETSrekin izandako bileren berri eta ETSk emandako informazioen berri ere galdetu genuen, baina beste behin ere, alkateak prentsak argitaratutakoa errepikatu eta egindako galderei erantzun gabe eman zituen azalpenak. ETSk emandako informazioa eskuratzea zen gure asmoa, hiri honetan gertatzen ari dena jakiteko eskubidea baitugu uda taldeok eta hiritarrok, baina hori egitea ukatu zen.

Argi dago udal taldeok, eta donostiarrok oro har ere, oso informazio gutxi jasotzen ari garela metro-pasantearen lanei buruz, eta areago, askotan ematen den informazioa nahasia dela. Izan ere, hasieran Zubieta kaleko arazoa zena -eta “konponbidean zegoena”, alkatearen hitzetan-, denboraren poderioz,

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

eta Eusko Jaurlaritzak berak onartuta, Easo kaleko arazo ere bihurtu da. Alegia, hasieran esandakoa baino handiagoa suertatu da arazoa, obrak gelditzeko bezain larria izan baita.

Mirakontxa-Easo zati osoa bertan behera dago gaur egun. Eta ez hori bakarrik: tartean, bat-bateko esku-hartze bat egin behar izan da, premiaz, Kontxako pasealeku azpian. Lanen inguruko gorabehera ugarienez informatzeari dagokionez, beraz, ETSren jarduna oso eskasa izan da (gutxienez) hilabeteotan, eta horren aurrean ere, Eneko Goia alkatearen jarrera ez da izan horiek argitzekoak, ez eta partekatzeak.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA**:

1. Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, Donostiako metro-pasanteari dagokionez, ez dezala informazioa ezkutatu, gardentasunez joka dezala eta duen informazio guztia gainerako udal taldeekin eta donostiarrekin parteka dezala.

Donostian, 2020ko urriaren 22an

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
EH BILDU udal taldeko zinegotzia